



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

**Jada Kontratisten
Erregistro Ofizialarekin
izapideak internet bidez
egin daitezke**



www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

19




Paperean egindako izapideen eta aplikazio berriekin egindako izapide digitalen arteko konparazio-grafikoa

Prozedura Klasikoa



Lortu paperezko inprimakiak



Makinaz idatzi paperezko inprimakiak



Sinatu eskuz eta jarri enpresako zigilua



Inprimatu inprimakiak eta erantsi legezko agiriari



Igorri postaz edo aurkeztu pertsonalki Erregistroan



Erregistroko teknikariek ekarritako agiriak aztertzen dituzte eta datuak aplikazioan kargatzen dituzte

Prozedura Elektronikoa



Sartu aplikazioan interneten




Idatzi internet bidez aplikazioan



Sinatu elektronikoki txartel elektronikoarekin



Aplikazioan jasotako datuak automatikoki igortzen dira Erregistroa



Igorri postaz edo aurkeztu pertsonalki Erregistroan. Jasotako datuak aplikazioan biltegitratzen dira



Erregistroko teknikariek ekarritako agiriak aztertzen dituzte eta aplikazioko datuak baliozkotzen dituzte



Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua



Jada Kontratisten Erregistro Ofizialarekin izapideak Internet bidez egin daitezke

Eusko Jaurlaritzak informazio eta komunikazio teknologien bidez hiritarrentzako eta enpresentzako zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta barneko eraginkortasuna areagotzeko ekimenen artean, **Kontratazio Elektronikoaren** sistemaren barruan eta horren tresna osagarri gisa, **informatikako aplikazio bat** ezarri du. Aplikazio horretara **internet bidez** sar daiteke eta askoz errazagoa izango da **beharrezko inprimakiak betetzea eta Kontratisten Erregistro Ofizialean alta emateko eta indarrean jarraitzeko behar diren agiriak lortzea.**

Aplikazio informatiko horren bidez, enpresek honakoak egin ditzakete:

- Enpresa horri buruz Kontratisten Erregistro Ofizialean dagoen informazio guztia kontsultatu.
- Inprimaki elektronikoaren bidez bete enpresak Erregistroan alta emateko behar dituen agiriak, baita aurrez emandako edozein informazio aldatzeko edo izenematearen indarraldia berritzeko behar direnak ere.
- Agiri horietako batzuk modu digitalean igorri.
- Ziurtagiriak modu automatikoan lortu eta hirugarrenei informazioa bidali, eskatutako izapidea behar izanez gero, hirugarrenak horrelakorik egiteko gaitasunik badu, behintzat.

Gero eta kritikoagoa da kontratisten erregistro ofizialean izena emanda egotea

EAEko Kontratisten Erregistro Ofiziala kontratazio administratiboaren tresna lagungarria da. Administrazioak kontratatzen dituen edo kontrata ditzakeen enpresen daturik garrantzitsuenak gordetzen ditu.


Kontratisten Erregistroak orain arte izan duen abantaila da, askotan lizitatzen duten enpresek ez zutela kontratazio prozedurako arauak eskatutako agiririk behin eta berriro aurkeztu beharrik, aurrez Kontratisten Erregistro Ofizialean utzita baldin bazituzten agiri horiek.

Dena dela, Eusko Jaurlaritza duela bi urte hasi zen internet bidez lizitzatzeko aukera emanez eta orduz geroztik are eta beharrezkoagoa eta erabilgarriagoa da Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda egotea, **lizitazio elektronikoa erabiltzeko ezinbesteko baldintza baita.**


Hau bereziki kritikoa izango da datorren maiatzaren 1etik aurrera, egun horretan sartuko baita indarrean sektore publikoko kontratuen lege berria. Lege honek 2004ko Europako zuzentarau bat garatzen du eta kontratazio mota hauek bitarteko elektronikoaren bidez bakarrik egin ahal izango direla zehazten du:

- Enkante elektronikoak
- Elkarrizketa lehiakorak
- Erosteko prozedura dinamikoak


Hau da, **enpresaren batek kontratazio-mota hauetakoren baten bidez izapidetzen den lizitazioaren batean parte hartu nahi badu, Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda egon beharko du nahitaez eta ziurtagiriak indarrean mantendu beharko ditu.**




1 Kontratazio elektronikoen web gunerako sarbidea



2 Erregistroa izena emateko edo ziurtagiria bermatzeko orrirako sarbidea



3 Kontratazio Erregistro Ofizialeko aplikazio telematikorako sarbidea



4 Txartel elektronikorekin, identifikatu "baimentze zerbitzuan" (sakatu azpiko menua, "ziurtagiria erabili")

Abian jartzen den prozedura mistoa

Erabili ahal izango duzun prozedura mistoa da, **ohiko tramitazioak eta internet bidez baliabide berriak erabiltzeak elkar osatzen baitute** sekuentzia honetan:

1. Inprimakiak bete eta inprimatu modu erraz eta erosoan internetetik eskura daitekeen aplikazio informatikoaren bidez.
2. Sinatu (eskuz sinatu) eta inprimakiak igorri orain arte bezala, hau da, Kontratazio Erregistro Ofizialean behar adina botere duen ordezkari batek sinatuko beharko du eta eskatutako gainerako agiriak ere igorriko beharko dira.


Dena dela, inprimaketako agiri guztientzat orokortu daitekeenez prozedura hau, aplikazioan sinadura elektronikoa ere egin

daiteke eta horietako bat internet bidez igorri. Hain zuzen ere, administrazioak kontratatzeko Herri Administrazioen Kontratuen Legeko 20. artikuluan adierazitako kontratatze galerazpenik ez dagoela adierazten duena. Baita Administrazioarekin inolako zerga betebeharririk ez duela dioena ere.


Kasu honetan erabiltzaileak hauetakoren bat aukeratu ahal izango du:

- Agiri hau inprimatu, sinatu eta igorri gainerako inprimakiekina batera aurrez deskribatutako prozeduraren arabera.
- Agiria elektronikoki sortu eta sinatu aitortutako ziurtagiri elektronikoren bidez, Kontratazio Erregistro Ofizialean behar adinako botere duen ordezkari batek aitortuta.

Eredu erraz, erabilgarri eta segurua



5 Txartel elektronikoaren gakoa erabili, "baimentze zerbitzuan" identifikatzeko



6 Erregistroko aplikazio telematikoan sartu



7 Laguntza eskuliburua


Eusko Jaurlaritzaren bokazioa prozedura erabat digitalizatzea den arren, gaur egun hori egiteko dagoen arazo nagusia enpresek aurkeztu beharreko agiri asko eta asko paperean bakarrik daudela da.

Izan ere, Kontratazio Erregistro Ofizialean alta emateko eta indarraldia berritzeko, beharrezkoa da hainbat agiri aurkeztea, hainbat erakunde sortutakoak, batez ere, ogasunekoek. Gaur egun, administrazio publiko guztiek ez dute prozedura digitalak erabiltzeko beharrezko heldutasun maila eta ondorioz, eskatutako informazio gutzia ez dago formatu elektronikoa.

Zerbitzu digitalen prestazioan aurreratuago dauden administrazioetan datuak truka daitezke mekanismo telematikoen

bidez. Erakunde horietako informazioa edo ziurtagiriak lortu behar direnean, aplikazioak honakoetakoren bat egiteko aukera emango du:

- ohiko prozedura erabil daiteke, hau da, informazio hori paperean lortu eta igorri.
- Eusko Jaurlaritzari baimena eman dakioke datuak trukatzeko mekanismo telematikoak erabiltzeko, eskatutako informazioa lortzeko. Une horretatik aurrera, ez du informazio hori aldiro eskatu beharko Eusko Jaurlaritzara igortzeko.



Aplikazioan sartu

Helbide honetatik sartuko da aplikazioan:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/appcont/solicitudregistro>

Aplikazioan sartzeko, beharrezkoa da onartutako ziurtagiri elektronikoa erabiltzea. Era berean, erabiltzailea enpresaren ahalduna izan behar du.

Beharrezkoa izango da erabiltzaileak onartutako ziurtagiri elektronikoa izatea ere, elektronikoki sinatutako agiriak igortzea erabakiz gero.

Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Elektronikoaren web orrietan (www.contratacion.info) du erabiltzaileak baliozko ziurtagirien zerrenda.

Ziurtagiri elektronikoak eskatzen dituzten irakurketa dispositiboak eta programak aldatu egiten dira hori egin duen Ziurtagiri Zerbitzuko Hornitzailearen arabera eta euskarri fisikoaren edo elektronikoen izaeraren arabera. Horregatik, horri buruzko informaziorako dagokion ziurtagiri zerbitzuko dagokion hornitzailearengana jo.